

KUDEAKETA-PLANA 2019

HELBURU ESTRATEGIKOEI LOTUTAKO EKINTZAK

1.1 H. Ebaluazio-prozedurak hobetzea, eta, horretarako, ebaluazio bat eskatzen duten erakunde edo pertsonen eskatutako txostenen eta dokumentazioaren edukiak sinplifikatzea eta tamaina txikiagotzea.

1. Ebaluazio-protokoloak sinplifikatzea, eskatu beharreko informazioari zein haren tamainari dagokionez.

- UPV/EHU-ren ordainsari-osagarri gehigarriak ebaluatzeko protokolo berri bat egitea.
- Egiaztapen instituzionala. Protokolo hori egingo da ebaluazio instituzionala egiteko helburuarekin, 420/2015 Errege Dekretuari jarraikiz.
- Tituluen egiaztapena bigarren aldiz berritzea.
- Bidezko bada, titulazioak egiaztatze eta baimentzeko, aldatzeko, berritzeko eta haien jarraipena egiteko protokoloak berrikustea, 274/2017 Dekretu berrira egokitzeko.
- Bidezko bada, titulazio bikoitzetarako egiaztapena berritzeko eta haren jarraipena egiteko protokolo bat aztertu eta egitea.
- Bidezko bada, ebaluazio dualeko protokoloa berrikustea, behin Gradu eta Master unibertsitate-titulu ofizialetarako prestakuntza dualaren aintzatespena lortzeko deialdia amaitu ondoren.
- Titulu propioen protokoloa berrikustea, Unibasqekin hitzarmena duten unibertsitateen titulu propioen proposamenen kanpo-ebaluazioa egiteko.
- Gradu, Master eta Doktorego tituluak lortzeko gauzatu behar diren unibertsitate irakaskuntza ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzko 274/2017 Dekretu berrian ezarritako bektoreak ebaluatzeko protokoloak.
- Datu-bilketa Euskal Unibertsitate Sistemako tituluak oinarritzko edo tarteko mailan kategorizatze, unibertsitate-ikasketa ofizialak hiru bektoretan kategorizatze Eusko Jauriaritzaren aginduari jarraiki: metodologia berritzaileak, nazioartekotzea eta enpresa/erakunde edo bestelako entitateekiko harremanak.
- Etika eta Berme Batzordeak jardute-prozedura bat onartuko du, Unibasq-en ebaluazio-prozesuetan pertsonen edo erakundeek emandako informazioetan irregulartasunak daudenean nola jardun adierazteko.
- Egiaztapen instituzionala berritzeko eta hari jarraipena egiteko protokolo-proposamen bat garatuko da.
- Egiaztapen-protokoloa erraztuko da.
- Titulazio bikoitzen jarraipena egingo da, REACUren gomendioetan oinarrituta.
- Titulu propioen ebaluazio-prozedura berrikusiko da, Unibasqekin hitzarmena duten unibertsitateen titulu propioen proposamenen kanpo-ebaluazioa egiteko.

- Irakaskuntzaren berrikuntza aipamenaren ebaluazio-protokoloa eta aipamen bikoitzen eta nazioartekotze-aipamenaren protokoloen metaebaluazioa onartuko da.
- Agenda Euskadi 2030 programarekin lotutako helburuak berrikusteari arreta berezia eskainiko zaio.

2. Izapidetze elektronikoan aurrera egitea ebaluazio-prozedura guztietan.

Unibasq-en terminal guztiak Eusko Jaurlaritzaren sarearekin lotuko dira, programen barnezein kanpo-kudeaketa errazteko.

EJIERi laguntzea prozedurak izapidetze elektronikoaren gaineko eskakizun berrietara egokitzeko lanetan, 39/2017 Legean ezarritakoa betez.

Ebaluazio-programetan erabilitako aplikazio informatikoak eguneratu eta sinplifikatzea.

1.2 H. Nazioartean errekonozituta dauden eta Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen espezifikotasunetara egokituta dauden adierazleen sistema labur baina esanguratsu bat finkatzea, eta haren erabilera eta emaitzen zabalkunde publikoa sustatzea.

3. Nazioartean finkatuta dauden eta unibertsitateen sailkapenetan gehien erabiltzen diren adierazleei buruzko azterlan bat egitea.

Adierazle horiek gure ebaluazio-protokoloetan txertatzea.

2018an aztertuko da unibertsitate-jarduerak gizartean duen inpaktua neurtzeko adierazle berriak txertatzeko aukera. 2019an garapen jasangarrirako helburuen (GJH) garapenari buruzko erreferentziatzko adierazle berriak nola txertatu ikertuko da, bereziki, genero berdintasunaren arloan.

4. Adierazle horien emaitzak unibertsitate-jardueraren Behatokian argitaratzea.

Behatokia eta haren adierazleak eguneratzea eta haien jarraipena egitea, eta Unibasq-ek egindako deialdietara boluntarioki aurkeztutako titulazioek lortutako aipamen edo ziguiluak argitaratzea.

Bigarren hezkuntzako ikastetxeetan Behatokia zabalduko da.

Ebaluazio eta adierazleei buruz egindako azterlan eta jardunaldien laburpena argitaratzea.

5. Eusko Jaurlaritzari eta unibertsitateei unibertsitate-planen inguruko aholkularitza eskaintzea.

Orain arte bezala, aholkularitza eskaerei erantzunez egingo da.

1.3 H. Unibertsitateek eta/edo Eusko Jaurlaritzak eskatuta, Euskal Unibertsitate Sistemako titulazioen maparen diseinuan eta hobekuntzan aholkatzea.

6. Gobernua eta unibertsitateak titulazioen mapari lotutako gaietan aholkatzea eta haiekin lankidetzan jardutea, diseinuari zein ezarpenari dagokionez.

Aipamen dualen eta nazioartekotze-aipamenaren eskaerak ebaluatuko dira.

Irizpideetan eta protokoloa egiten laguntzea, hortik abiatuta, Gradu eta Master tituluen sailkapena egiteko 274/2017 Dekretuan aipatutako bektoreen arabera. Batez ere, irakaskuntza berrikuntzari buruzko aipamena sortzea.

Orain arte bezala, eskaerei erantzunez egingo da aholkularitza.

1.4 H. Irakasleen karrera akademikoa hobeto zehazten eta ebaluatzen laguntzea, nazioarteko parametroak kontuan hartuta.

7. DOCENTIA programa gure inguruneko premietara egokitzea, baina, aldi berean, irakaskuntza-jarduera neurtzeko nazioarteko estandarrak kontuan hartzea.

Deustuko Unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateak programaren ezarpena ziurtatzea sustatuko da. UPV/EHUren kasuan, ezarpenaren ziurtapen-txostenean egin zitzaizkion gomendioen jarraipena egingo da.

Docentia programaren metaebaluazioa.

1.5 H. Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen kalitatearen egiaztapena eta unibertsitate-komunitate osoa Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemari inplikatzeko eta interesatuta dauden agenteek parte hartzeko aukera sustatzea.

8. AUDIT programa edo baliokidea bultzatzea, unibertsitate-erakundearen inplikazioa areagotzea eta interes-talde guztiak barnean hartzeko aukera sustatzea.

2019rako aurreikuspena honako hau da:

- KBSaren ezarpena ziurtatzea AUDIT programaren arabera: Zazpi zentro.
- KBSaren diseinuaren ebaluazioa: Zazpi zentro.

Egiaztapen instituzionala berritzeko protokoloetan AUDIT programa txertatuko da.

Titulazioen ebaluazio-sistema eta erakundearen sistema osoa berrikusiko da, alferrikako burokrazia ezabatzeko eta eraginkorragoa bihurtzeko. Horretarako horien arteko koordinazio zehatza behar da, eta bakoitzean helburu garbiak ezarri behar dira, sistema osoaren koherentzia gordez.

2. ARDATZA. GIZARTE-PROIEKZIOA: ERAKUNDEEKIKO, BESTE KALITATE-AGENTZIA BATZUEKIKO ETA GIZARTE-AGENTEEKIKO KOMUNIKAZIOA ETA LANKIDETZA

2.1 H. Gizartean Agentziaren jarduerak eta Agentziak Euskal Unibertsitate Sistemaren hobekuntzan betetzen duen zeregina zabaltzea.

9. Interes-talde nagusien espektatibetara eta programen izaerara egokituko den komunikazio-protokolo bat zehaztu eta ezartzea.

Indarreko prozeduraren jarraipena eta eguneratzea.

Facebooken, Twitteren eta Linkedinen profilak garatzea, agentziako langileentzat profilak sortuz.

10. Unibertsitateko berrikuntzaren saria.

Unibertsitateek Quality Innovation of the Year sarian parte hartzen jarraitzea sustatuko da. Xede hori lortzeko hiru orduko lantegi bat burutzea proposatuko da, ebaluazio-irizpideei eta aurkeztu beharreko dokumentazioaren prestaketari buruzkoa.

Euskaliten urteroko ekitaldian unibertsitate-berrikuntza onenaren sariari ikusgarritasuna emango zaio.

2.2 H. Euskal ingurune sozioekonomikoko agenteekiko lankidetzaren areagotzea, erakundeen zein Euskal Unibertsitate Sistemako titulazioen inguruko aholkularitza- eta ebaluazio-prozesuetan parte har dezaten.

11. Gizarte-agenteeekin (enpresa- eta kultura-elkarteekin, profesionalen elkargoekin eta abar) topaketak egitea eta hitzarmenak sinatzea, Euskal Unibertsitate Sistemaren inguruko iradokizunak biltzeko eta titulazio eta erakundeen ebaluazio-paneletan haien laguntza izateko.

Novia Salcedo Fundazioarekin hitzarmen bat sinatuko da txosten bat egiteko eta, hala, jakiteko enpresek edo erakunde sozialek zein kompetentzia eskatzen dituzten, enpresek GJH-ekin lotutako gaitasunak eskuratzeari zer garrantzi ematen dioten eta ikasleek zein gaitasun eskuratu nahi dituzten.

Enplegarritasunari eta unibertsitatean eskuratutako konpetentziei buruzko ekitaldi bat antolatuko da Novia Salcedorekin batera.

Q-epea sarean integratuko da.

Heziketa dualaren ebaluazioari buruzko jardunaldi bat, enpresa tutoren partaidetzarekin.

12. Euskalitekiko lankidetzaren areagotzea.

AUDIT-KAE baterako ebaluazioaren bidez Kudeaketa Aurreratuaren Eredua bultzatzea: Eredua egiaztapen instituzionalari egokituko zaio. Kudeaketa Aurreratuaren Eredua egiaztapen instituzionalaren berrikuntzari txertatuko zaio.

Unibertsitateko langileek ebaluatzaile gisa parte hartzea Euskaliten KAEan.

Quality Innovation Award sariaren antolakuntzan parte-hartuko da.

2.3 H. Ikasleek Agentziaren ebaluazio-prozesuetan eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko aukera sustatzea, goi-mailako hezkuntzaren hobekuntzari buruz duten iritzia txertatzeko.

13. Unibertsitateko Ikasleen Aholku Batzardea eratzea.

Gutxienez hiru bilera egitea, eta jardunaldi eta ikastaroetan laguntzen eta parte hartzen jarraitzea.

14. Ikasleek unibertsitateen kalitatean eta ebaluazioan prestatzeko programa bat diseinatu eta aplikatzea.

Prestakuntzako bi tailer egitea.

Prestakuntza espezifikoa, ikasleak ordezkatzuz Ebaluazio Batzardeetan sartzen direnentzat.

Ikasleek udako ikastaroetan parte hartzea.

2.4 H. Unibertsitateko unibertsitateen kalitatearekin zerikusia duten erakunde eta sareetan (REACUn bereziki) duen presentzia areagotzea.

15. Unibertsitateen kalitateari buruzko Estatuko bilera eta foroetan (REACUn bereziki) aktiboki parte hartzea.

2019an gutxienez hiru bilera aurreikusi dira, besteak beste honako hauei heltzeko: Ebaluazio- eta egiaztapen-prozesuen berrikuntzari agentzien ekarpenak ezarriko zaizkio, egungo araudiari aldaketak egitea proposatuz edo erakundeen berrikuntza nola bideratu daitekeen iradokiz. Bigarren alor horretan, REACUK sortutako lantaldearen burua da Unibasq.

“Bologna hogeitau urte geroago” izeneko udako ikastaroaren antolaketa.

Santiago de Compostela egingo den Fecies Foroan parte hartuko da.

Unibertsitate-kalitatearekin zerikusia duten gaietarako buruz gutxienez 3 jardunaldi, mintegi edo hitzalditan parte hartzea.

3. ARDATZA. AGENTZIAREN NAZIOARTEKOTZEA, EUSKAL UNIBERTSITATE-SISTEMARI LAGUNTZEKO

3.1 H. Beste agentzia edo unibertsitate batzuekin nazioarteko proiektuak garatzea (ebaluazio-metodologiei buruzkoak bereziki).

16. Atzerriko unibertsitate edo agentziekin baterako jardueretan parte hartzea.

Europako proiektuak:

1. Database of External Quality Assurance Results (**DEQAR**). EQAR erakundea dago proiektu horren buruan, eta datu-base bat garatzea du helburu nagusizat, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan (ESG) Kalitatea Ziurtatzeko Irizpide eta Jarraibideak kontuan izanik EQAR erakundearen erregistratutako agentzia batek kanpotik ebaluatutako goi-mailako hezkuntzako erakundeei edo haien programei buruzko txosten eta erabakietarako sarbidea hobetzeko. Agentziak igorritako ebaluazio-txostenak argitaratzen jarraituko da.
2. Facilitating implementation of the European Approach for Quality Assurance of Joint Programmes (**ImpEA**). Poloniako kalitate-agentziak (PKA) koordinatzen du proiektu hori, baterako tituluen kalitatea ziurtatzeko Europako ikuspegiaren (European Approach for Quality Assurance of Joint Programmes) benetako ezarpena bultzatzeko helburu nagusiarekin. Proiektuan kalitate-agentziek (AQAS, PKA eta Unibasq) eta goi-mailako hezkuntza-erakundeek (Adam Mickiewicz University Poznań, Carl von Ossietzky University of Oldenburg, Deustuko Unibertsitatea eta Warsaw School of Tourism and Hospitality Management) hartzen dute parte, baita ENQA, ECA eta EQAR erakundeek ere. Deustuko Unibertsitateko NOHA masterrari bisita egin ondoren, dagozkion txostenak igorriko dira eta proiektuan aurreikusitako toolkit-a garatzeko prozesuari buruz hausnartuko da.

3. Linking Academic Recognition and Quality Assurance (LIREQA) proiektuarekin lankidetzan arituko gara. Lituaniako SKVC agentziak koordinatzen duen proiektu horren xedea, tituluen bidezko aitortzaren alde jardutea da, aitorten akademikoari buruzko eta kalitatea barnetik eta kanpotik bermatzeari buruzko gomendioak garatuz. Proiektuaren azkeneko hitzaldia, eskuratutako ondorioak bilduko dituen, Vilniusen egingo da 2019ko maiatzean.
4. INQAAHEK finantzatutako proiektua, irakaskuntza-ikaskuntza metodologia berritzaileak ebaluatzen metodo bat garatzeko xedea duena (Assessment of innovative methodologies in teaching and learning in the Basque University System – INNOMETH), 2019. urtean zehar gauzatuko dena.
5. NVAOrekin Work Based Learning sistemari buruzko proiektuaren proposamen bat aurkeztuko da, berrikusia eta hobetua, Peer Support Group-aren hurrengo deialdira aurkezteko.

2019an jarraituko dugu ECAREN lantaldeetan parte-hartze aktiboa izaten:

- Elkar aintzatesteari eta baterako tituluei buruzko 1. lantaldea (Unibasqek koordinatzen du talde hori 2017ko ekainaz geroztik).
- Kalitate-bermearen eta egiaztapenaren inguruko berrikuntzari buruzko 2. lantaldea.
- Nazioartekotzearen bikaintasunaren Cequint ziurtagiriari buruzko lantaldea.

3.2 H. Unibasqek unibertsitateen kalitatearekin zerikusia duten nazioarteko erakunde eta sareetan duen presentzia areagotzea (ENQA eta EQAR erakundeetan bereziki).

17. Unibertsitateen kalitateari buruzko nazioarteko bilera eta foroetan aktiboki parte hartzea.

Heziketa dualari (work-based learning) buruzko jardunaldi bat antolatuko da Bilbon, nazioarteko adituak izango dituen, eta bertan heziketa dualaren arloko unibertsitateen eta enpresen jardunbide egokiak aurkeztuko dira.

2019an Zuzendariak ENQAREN Board-eko kide izaten jarraituko du, nazioarteko foroetan ponente gisa parte hartzea barne.

Aurreikusita dago, halaber, unibertsitate-kalitateari buruzko nazioarteko honako foro hauetan aktiboki parte hartzea:

- ECA Winter workshop Cologne-n.
- 2019 ENQA Members' Forum.
- 2019 INQAAHE Conference "Quality Assurance, Qualifications and Recognition: Fostering Trust in a Globalized World".
- 2019 ECA Summer Workshop.
- 2019 ENQA General Assembly.

3.3 H. Unibasqen nazioarteko aholkularitza- eta ebaluazio-jarduera sustatzea (Europar eta Latinoamerikan bereziki).

18. Aliatuak bilatzea, Unibasqek beste herrialde batzuetan ebaluazio-jarduerak egiten hasi ahal izan dadin.

Txilen hiru titulazio ebaluatzea.

3.4 H. Euskal unibertsitateen eta Europako eta Latinoamerikako unibertsitateen arteko harremanak erraztea ebaluazio-agentzien arteko lankidetzaren bitartez.

19. Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateekin lankidetzan diharduten erakundeak eta tituluak egiaztatzen dituzten agentziekin harremanak ezartzea eta lankidetzaren hitzarmenak egitea.

Txileko CNA agentziarekin hitzarmena sinatzea.

3.5 H. Nazioartean errekonozituta dauden adierazleen argitalpen sinplea eta eraginkorra sustatzea, Euskal Unibertsitate Sistemaren nazioartekotzea eta nabarmentzeko aukera errazteko.

20. Nazioartean finkatuta dauden eta unibertsitateen sailkapenetan gehien erabiltzen diren adierazleei buruzko azterlan bat egitea.

Ikus 3ko helburuak.

21. Adierazle horien emaitzak argitaratzea.

Ikus 4ko helburuak.

4. ARDATZA. BARNE-ANTOLAMENDUA: ZUZENDARITZA, PLANGINTZA, GIZA BALIABIDEAK

4.1 H. Prozesuen araberako kudeaketa indartzea, eta, horretarako, Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema (KBBS) egokitzea, sinplifikatzea eta erabakien eraginkortasunera, langileen optimizaziora eta Unibasqeko erabiltzaileen premietara bideratzea.

22. KBBSa berrikusi eta sinplifikatzea.

2018an onartutako adierazleen taula berria ezarriko da.

Euskarari eta berdintasunari buruzko atal bat txertatuko da prozedura guztietan.

Hala dagokien barne funtzionamendu prozeduretan GJHekiko errespetua eta sustapena txertatuko da.

Euskalitekin kontraste berri bat egitea.

4.2 H. Erakundearen egitura eta funtzionamendua hobetzea eta langileen motibazioa, konpromiso etikoa eta barne-komunikazioa areagotzea, Agentziak ENQA erakundeant sartu eta EQAR erakundeant erregistratu ondoren dituen erronka berriei aurre egiteko.

23. Koordinazio-bilerak aldizka eta parte-hartzea eta inklusioa bilatuko duen formatu dinamiko batekin egitea.

Lantalde osoarekin gutxienez bost bilera egitea.

Gutxienez hamabostean behin programen arduradunekin biltzea.

24. Barne-komunikazioko prozedura berrikusi eta hobetzea.

Barne-komunikazioko prozeduraren adierazle eta gertakarien jarraipena egitea.

25. Langileak Agentziaren errealitate berrira egokitzea.

Langileen egitura berriarentzat egokia den enpresa-itun berri bat onartuko da.

26. Urteko prestakuntza-plan bat diseinatu eta aplikatzea.

2019rako prestakuntza-plan bat egitea. Heziketa sustatuko da, besteak beste, honako alor hauetan: gardentasuna eta gobernantza ona, kontratazio publikoa, berdintasuna eta GJH.

4.3 H. Agentziaren jardueraren emaitzen kontua eta euskal gizartearen eta haren gobernuaren aurrean egin beharreko aurkezpena hobetzea.

27. Programa Kontratuaren Jarraipen Batzordea eratzea, Programa Kontratuaren 7. puntuan ezarritakoaren arabera.

Kontratu Programaren urteko jarraipena. 2016an eraturako Jarraipen Batzordearen bilera bat egitea gutxienez.

28. Webgunea eguneratzea, unibertsitate-jardueraren Behatokia barnean hartuta.

2019an informazio gehiago txertatuko da argitalpenen, agentziak jardunaldietan egindako jardueren eta hitzaldien inguruan, agentziak egindako ebaluazioen azterketa tematikoa azpimarratuz.

Behatokiaren datuak eta egitura eguneratu egingo dira, enplegarritasun tasak txertatuz eta zentroentzako beste fitxa bat sortuz.

Facebooken, Twitterren eta Linkedinen profilak garatzea, agentziako langileentzat profilak sortuz.

29. Agentziaren jardueraren aurkezpen publikoak.

Titulazio dualen eta nazioartekotasunaren balioespenaren emaitzak aurkeztuko dira.

Gutxienez prentsaurreko bat egingo da.

Behatokia bigarren hezkuntzako zentroetan aurkeztuko da.

BESTE BARNE- ETA KANPO-KONPROMISO BATZUEI LOTUTAKO EKINTZAK.

1. Euskara Batzordeak 2018an onartutako Unibasq-en hizkuntza-normalizaziorako plan berrian 2019rako aurreikusitako ekintzak eta helburuak beteko dira.
2. 2018an onartutako Unibasq-en 2019rako berdintasun-planean aurreikusitako ekintzak eta helburuak beteko dira.
3. Unibasq-eko Etika eta Berme Batzordearen osaera eta araudia berrituko da, ENQAko partaidetzaren berrikuntzari buruzko txostenaren gomendioak jarraituz.
4. ENQAko partaidetzaren berrikuntzari buruzko txostena aztertu eta txosteneko gomendioak txertatzeko ekintza-plan bat garatuko da.
5. Etika eta Berme Batzordearen Araudia berritzea, ENQAk bere txostenean hari buruz egindako oharrei erantzuteko.
6. Azkeneko hiruhilekoan plan estrategiko berri bat eta programa-kontratu berri bat osatu beharko da 2020-2023rako.
7. Datuen babesarekin lotutako gaien ezarpenean aurrerapausoak emango dira Unibasq barnean, Eusko Jaurlaritzaren Datuak Babesteko Ordezkaritzak eta Erregelamendu Orokorrek finkatutako gidalerroei jarraiki.